

AGERIKO BATZARRA

Bilbon, 2001.eko apirilaren 27an

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 2001.eko apirilaren 27an, arratsaldeko lau eta erdietan eman dio hasiera Euskaltzaindiak hil berri diren euskaltzainen omenezko bilkurari.

Honako jaun-andre hauek bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, P. Goenaga idazkaria eta J. A. Arana diruzaina mahaian, eta Beñat Oihartzabal, P. Altuna, Miren Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, A. Eguzkitza, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta euskaltzainak; J. A. Retolaza, euskaltzain ohorezkoa; eta J. A. Aduriz, G. Aulestia, R. Badiola, S. Garcia Trujillo, M. Gorrotxategi, J. L. Lizundia, P. Uribarren, M. Ruiz Urrestarazu eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak. Eta gonbidatuen artean, omenduen senitartekoak eta adiskide ugari ere bildu da aretoan.

Euskaltzainburuaren hasierako agurraren ondoren, idazkariak hartu du hitza goizeko bilkuraren berri laburra emateko. Gero, hilberri txostenak irakurri dira.

Luis Villasante euskaltzainaren hilberri txostena

Luis Villasante euskaltzainburu zenaren omenezko hitzaldia Juan San Martin euskaltzain jaunak egin du. Villasanteren bizitzaren eta lanen berri xehea eskaini du hizlariak. Lan oparoa Villasanterena. Hein batean, Villasanteren historia Euskaltzaindiaren historia ere badela aitortu du hizlariak. Euskara batua gauzatzeko orduan, haren lana guztiz funtsezkoa izan zela gogoratu du. Iratzedarren poema baten irakurketarekin eman dio amaiera hitzaldiari.

Mariano Izeta euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena

Paskual Rekalde jaunaren eskutik etorri da hurrengo hitzaldia. Mariano Izeta euskaltzain ohorezko zenaren irudia aurkeztu du, bere alderdi nabarmenenak erakutsiz, gizon bezala, euskaltzale, herrizale eta abertzale bezala. Bertsozale, idazle, itzultzaile ere izan zen. Kazetari lanetan ere aritu zen. Euskaltzale eta herrizale handiaren irudi aberatsa eskaini du hizlariak.

Pedro Pujana euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena

Patxi Uribarren euskaltzain urgazleari egokitu zaio Pedro Pujana euskaltzain ohorezkoaren gomuta-hitzaldia egitea. Anbotoko harkaitz sendoaren antzeko tantaiarekin konparatu du hizlariak. Haren bizitza eta euskararen aldeko lanak ekarri ditu gogora:

apaiz ikasketak, jesuita izandako urteak, euskal aditzari eskainitako lanak, Bizkaiko foruaren itzultzaile gisa burututakoa, eta abar.

Bitoriano Gandiagaz Juan Mari Lekuonak eskainitako hitzaldia

Euskaltzaindiak ohoratu nahi izan duen laugarren euskaltzaina Bitoriano Gandiaga izan da, euskaltzain ohorezkoa eta poeta ezagutua, maitatua eta estimatua, hizlariaren hitzetan. Poeta handiaren bizitza eta elkarrekin izandako harremanak gogoratu ondoren, haren estetika berezia eta erabilitako gaiak aipatu ditu hizlariak. Horien artean leku berezia dute lurrak, etxeak, euskarak, gizarteak eta erlijioak.

Rosa Mari Artza gogoan

Jose Luis Lizundiak egin du Rosa Mari Artza zenaren hilberri txostena. Rosa Mari Artzak bere bizitzako urterik gehienak Euskaltzaindiari eskaini zizkion. Lizundiak urte luzeetan lankide eta adiskide izan zuenaren ikuspegia eskaini du. Ozta-ozta amaitu ahal izan du, emozioak hitzei traba egiten baitzien maiz. Euskaltzaindiak Rosa Mari Artza beti gogoratuko du langile fin gisa ez ezik, militante isil eta ezezagun horietako gisa ere.

Hilberri txosten zerrenda ohi baino luzeago honen ondoren, euskaltzainburuak hartu du hitza hizlariari eskerrak emateko. Euskaltzaindiaren euskarri izan direnak gogoratu direla, baina bizitzak aurrera segitzen duela gogorarazi du: hilak gogoan atxikitzen ditu Akademiak baina geroari buruz jardun behar du beti lanean. Horren frogada, adibidez, Villasante zenaren ordezkotza izateko A. Eguzkitza izendatu izana.

Arratsaldeko seietan amaitu da bilkura.